

Aberea erori zitzaionekoa

Nere aitek mandatzen tzien Makerrañe! Makerraingo eskolan maten tzuten jatera aurrei, eskolara joaten tzienai. Eta han, han bazkarie iteko, nere aitek ematen tzuen egurre oihanetik.

Eta behieki zegonean iten tzuen egurre, ta gero erraten tzien neri: «guaie!» halako... hamarretan o hameketan o... «guaye harara... ta nik egurre prestatuko'ñet, eta gero kargatiko'ñet abria, eta hik emakon Makerrañe».

Ta aldi betez, egon tzen bihorra gaizki, eta nik enuen, enuen joan nahi.

Erraten nion aitai ezetz, enitzela fietzen; botako zaikiela abria, eta ezetz.

Aitek akonpañatu ziren puske batian, eta gero erran tzien: «guaie! orai berotu zun... berotu dun abria, eta joain'!» Ta zen aldapa bat, ta aldapa hartan, aldapa beiti, harri bet haundie zegon han, ta handik pasatu bihar giñuen. Eta abriak han, itian hola beiti, pues orduen, miña hartu zuen abriak, eta bota zaikien muturrez! Eta ezin soltatu kuerdak eta ezin... ta abria apuratuik! ta beldur nitzen no itoko zela!

Eta hasi nitzen, egurrek atratzen ia flojatzen tzen kuerda, ta orduan suelta... sueltatu nuen kuerda, eta soltatu niñon petralia, zergatik ematen tzuten basta, basta ade batetik bertzera, lepua... lepuan azpitik, «petralia» erraiten (t)zaikion... sujetatzeko basta, ez... botatzen... eztaien bota. Eta, orduen, sueltatu nion hore, ta kendu nion basta, dena atzera, eta gero txutitu... nere... lagun... neri... nik lagundu, eta txutitu zen bihorra; orduen gelditu zen deskantsatuik!

Gero, paratu nion basta nik, paratu nion basta ta zamukek, dena paratu nion, eta... ez! enion paratu; enitzen... ni enaiz oroitzen zenbat urte nituen orduen.

Nik, basta ezin bota nion gañera; eta gizon bat Makerraingua, heldu zen karro ateki, egurreki, ta esperatu nuen gizon hore harara erdetsi artio, ta gizon harrei erran nion bota zaikirela abria, eta nola txutitu nuen, eta ia paratiko zion harrek basta.

Ta harrek, gizon harrek paratu zion basta, eta paratu geñitton zamukek eta katxarro guziek, eta gero kargatu, eta joan nitzen Makerrañea. Beño erran nion aitei eni(n)tzela berriz joain: ne(r)i ez mandatu berriz...